



15.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO KADETE TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Kadete lehiaketa antolatzen du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: TOLOSA C.F.; MARIÑO C.D.; AÑORGA K.K.E; UROLA K.E.; INTXAURDI K.E.; HERNANI C.D.; GOIERRI GORRI F.K.; TOURING K.E.; ANAITASUNA C.D.; ZARAUTZ K.E.; ZUMAIAKO F.T.; ZESTOA K.B.; AMAIKAK BAT K.E. eta EIBAR S.A.D.

LEHIAKETA SISTEMA

Lehiaketa puntuetara eta bi itzulietara jokatu da, eta Euskadiko Futbol Federakundeko Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Lehen Kadete Mailara azken hiru sailkatuak jaitsiko dira.

2) ADINAK

Txapelketa honetan 2003, 2004 eta 2005 urtetan jaiotakoek parte hartu dezakete.

3) LIZENTZIAK

Lizentzien kopuru maximoa 25 dira. Halere denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

4) BALOIA

Baloia, 5 zenbakikoa izango da.

5) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

80 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezkoko eserlekuan.

6) XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen F-8 Infantileko taldean izena emanda duten azken urteko jokalaria infantilak, kadete mailan izena eman eta jokatu dezakete ondorengo izapidek alde zurretik betetzen badira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Instituziotik baimena izatea.
- Azterketa Medikuaren ziurtagiria aurkeztea
- Mutualitatean afiliatua egotea
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

Aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil neskek segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantilean bidegabeki jokalaria-zerrendan sartu izan dela kontsideratuko da aste buruan bi partiduetan parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetan izan.**

7) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenaz, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

Donostia, 2019ko abuztua
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe